


Sagardo eguna 2016



Azkenean zapatuan eguraldia portatu egin zen eta primeran ateratzen XXIII. Sagardo Eguna. Goiz eta arratsaldean jende mordo ibili zen Untzaga plazan Gorenak-eko 13 sagardogileek ekarritako sagardoak dastatzen eta txorizo eta gazta pintxo paregabeak jaten. Kirikoketa, matxaka eta tola-arearen inguruan jende ugari bildu zen goizean eta prestatu genuen muztioak sekulako arrakasta izan zuten.

Gure eskerrik beroenak Gorenak Sagardotegiei; Guridi eta Koskor tabernei; Peña Txinbera, Barakaldo eta Botellin Elkarte gastronomikoei; Jose Luis Fernandez "El Cantón de la Avenida"ri; Jose Mari Alberro, Iñigo Unzeta, Josu Osa, Koroatei baserriko Pilar eta Manueli eta, nola ez, egun osoan lanean jardun zuen lan-talde bikainari. Mundialak zarete! Mila esker!





X euskara
goZatu
EIBARKO UDALA



EMBUTIDOS

Señora **JULIA**

OKINDEGIA

URKO

SAGARDO EGUNEKO Selfi lehiaketa



SELFIE lehiaketako SARIDUNAK

Martitzenean etorri ziren sari bila aurtengo Sagardo Egunaren inguruan antolatutako selfie lehiaketako irabazleak. Argazkian ikusten duzuen moduan, zozketan saritutako argazkia bidali zuen Jon Izurza lagunekin batera etorri zitzaigun ...eta kittol!-ra eta pozarren eraman zituzten Gorenak-eko 13 sagardo botilak. Zorionak eta on egin!

